20 06

ORMAIZTEGIKO BIADUKTUA

Madril-Irun trenbidean parte hartu zuen, Eztanda ibaiko harana gainditzeko, Ormaiztegi aldean. Alexander Lavalley ingeniariak diseinatu zuen eta 1864. urtean inauguratu zen.

Burdin ijeztuko egitura bat da, juntura errematxatuekin. Jatorrian, harlanduzko lanez estalitako harri-hormetako lau pilak eusten zuen. 291 metroko luzera dauka, eta 34 metroko gehienezko altuera bat gainditzen du.


1936ko irailaren 15 eta 16an, Bergarako Labe Garaien Sarrailen Batasuneko UGT eta STV sindikatuei atxikitako langileek, sopletearekin, egindako mozketaren sabotajeak biaduktuaren Historian parte hartzen du. Horren ondorioz, bertako bi zati erortzea eragin zuten, Guda zibilaren lehenengo egunetan matxinatutako tropen mugimenduak oztopatzeko helburuarekin. Konpondu ondoren, biaduktua berriz inauguratu zen 1937ko otsailaren 1ean, eta zerbitzua eskaintzen jarraitu zuen jatorrizko antzeko itxurarekin.

1941ean bere estetika guztiz aldatu zen, trafikoa ugaritu zenez, sendotu behar izan zelako. Horretarako, jatorrizko pilen artean, hormigoi armatuko egitura huts batek osatutako beste lau sartu ziren, jatorrizkoekin kontraste nabarmena sortuz.

Baina eskakizunek gora egiten jarraitu zuten, bertatik igaro behar ziren tren unitate berrien ezaugarrien eraginez, beraz, 1995. urtean, erabiltzeari utzi zioten eta trafikoa zaharretik 18 kilometrotara kokatutako biaduktu berri batetik desbideratu zen.



Biaduktua. Jean Laurent-ek 1864. urtean ateratako argazkia.



Ortoargazkia 1954. Iturria. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa. Biaduktua ikus daiteke eta proiektatutako itzalari esker jatorrizko pilak (trinkoak) eta 1941ean sendotzeko gehitutakoak desberdindu daitezke.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Koordenadak: UTM 30N ETRS89 // X: 560325.7091 // Y: 4765807.0819 // Z: 204 m. Eskuinean biaduktu historikoa ikus daiteke eta ezkerraldean, berriz, 1995ean egindako trenbide saihesbidea.